Editorial

# Norabide estrategikoa

GAURKOAN geuri buruz hitzegingo dugu, Pyrenaicari buruz. Gauza ona da noiz behinka gelditzea eta ispiluaren aurrean nork bere buruari begiratzea, gogoratu dezagun zer garen eta nora joan nahi dugun. Ea erortzen ez garen fanatismoan zeina, Santayanak aipatzen duen bezala, "jatorrizko helburua galdurik ahaleginak areagotzean baitatza". Pyrenaican aldiro egin ohi dugu autodiagnostiko hau federatuen eta harpidedunen eritziak kontsultatu ditugunean, aldizkariaren etorkizuna aztertzen duguneko urteroko bileran eta noiz behinka ere gai sakonen baten gainean gogoeta egitera behartzen gaituen gutun edo kolaborazioren bat ailegatzen zaigunean.

Pyrenaica Euskal Mendi-Federakundearen adierazpide ofiziala da, eta horrek funtsezko bi gauza esan nahi du: bata, mendiari buruzko aldizkaria dela eta, bestea, federaturik dauden euskal mendizaleei zuzentzen zaiela, euskal mendizale federatu horien interesak defenditzen ahalegindu beharko delarik. Eta esangura sakona du honek, kolektibo horren heterogenotasuna eta konplexutasuna kontutan harturik, eta are gehiago bizitzen ari garen duda-mudazko momentu hauetan.

Aldizkariaren edukia, ekimen partikularraren bitartezko artikulu libreek osotzen dute gehienbat, horrela idaztera animatzen diren mendizaleek zer egiten duten eta zer sentitzen duten isladatzen delarik. Eta, beste ezer baino lehenago, zalantzagabeko eskerrona adierazi nahi diet mendizale bolondres gogatsu horiei, beren ekarpenak aldizkariaren arrakastarako ezinbestekoak suertatzen dira eta. Nahiz eta askotan beren kolaborazioa ezin sar daitekeek aldizkarian. Zeren gero eta ugariagoak baitira jasotzen ditugun artikuluak, aukeraketaren estrabea gero eta altuago jartzen delarik. Kantitate-kalitatezko espiral ederra da zeinak, orain dela denbora asko abentura honetan abiaturik gaudenok, gure ahaleginean etengabe animatzen gaituen.

Aukeraketaren prozesua korapilotsua da. Ebaluazioaren irizpideek kalitatea, edukiaren originaltasuna eta aberastasuna eta bere zuzentasun formala aztertzen dute: bikaitasuneranzko joera argazkietan eta argitasuna eta zehaztasuna mapetan eta gainerako dokumentazioan. Baina, garrantzitsuena, lehenik, da gaia egokia izan dadin: baztertu egiten dira funtsean politikoak, erlijiosoak edo komertzialak kontsideratu litezkeen idazkiak edo, oro har, "mendikoak" ez direnak.

Hurrengo urratsa idazkiaren moldaketa da artikulua bukatua bezala utzi arte. Batez ere, egin behar izaten dena zera da, osotu gabe heldu diren arloak bete eta estilozko zuzenketak egin edo garrantzizkoak ez izanik, artikuluaren ulerkortasuna oztopatzen edo beraientzat dagoen tartea gainditzen duten zatiak moztu. Eta hemen sartzen da argitaratu daitekeen artikulu batek ebitagarria eta inorena den osogai bat (batez ere, politikoa) izaten duenenan gertatzen den eskuhartzea. Horretarako, ahaleginak egiten dira egilearekin akordioa lortzeko, zentsurarik ez baita egiten. Baina, askotan, mugak ez daude argi, ez eta gaia politikoa den ala ez erabaki behar izaten denean ere, eta batzuk pentsatuko dute ezen mugak gainditu direla jadanik eta beste batzuk pentsatuko dute oso urrin daudela oraindik.

Prozesu honetan, alde batetik, azkeneko jasotzaileak ditugu, euskal mendizaleak gehienbat, eta bestetik, artikuluen egileak, euskal mendizaleak ere, jasotzaileak berberak edo beste batzuk. Eta bion artean, aldizkariaren giza-taldea dago. Aipaturiko bi kolektiboetan parte hartzen duten bolondresak gara. Eta altruistak diren erakunde guztietan bezala, emaitza ekonomikoen disziplinarik ez dugunez, ahalegindu egiten gara gure asmo onak kudeaketa on batek ordezkatu ditzan, erakundeen teorian erabiltzen den eta hain berba ozena den "misioa" horren kunplimendura zuzenduriko norabide estrategiko batetan oinarritzen den kudeaketak hain zuzen. Eta ahaleginak egiten ditugu aldizkarian agertzen diren balio, irizpide eta ekintzak inspiratzen dituzten printzipioen islada den nortasun korporatiboa mantentzen. Marra argia, espiritu unibertsala, irekia, anitza, aurrerakoia, jasankorra, ez sexista, solidarioa eta ekologikoa adierazten duena.

# Una dirección estratégica

HOY vamos a hablar de nosotros mismos, de Pyrenaica. Cada cierto tiempo es bueno parar y mirarse en el espejo para recordar qué somos y dónde queremos ir. No vaya a ser que caigamos en el fanatismo que, como observa Santayana, "consiste en redoblar los esfuerzos cuando se ha olvidado el propósito original". En Pyrenaica hemos hecho este autodiagnóstico periódicamente cuando hemos consultado la opinión de federados y suscriptores, lo hacemos anualmente en la reunión en la que repasamos el futuro de la revista y lo hacemos esporádicamente cuando nos llega alguna carta o alguna colaboración que nos hacen reflexionar sobre temas de fondo.

Pyrenaica es el órgano oficial de expresión de la Federación Vasca de Montaña, lo que implica dos aspectos clave: primero, que se trata de una revista de montaña, y segundo, que se dirige prioritariamente a los montañeros vascos federados, colectivo a cuyos intereses debemos intentar responder. Lo cual tiene su miga, dada la heterogeneidad y complejidad del colectivo en cuestión, y más en momentos de incertidumbre como el que estamos viviendo.

El contenido de cada revista se compone en su mayor parte de artículos libres que llegan a iniciativa particular, reflejando lo que hacen y lo que sienten los montañeros que se animan a escribir. Y, antes que nada, quiero expresar el agradecimiento inequívoco a todos estos voluntarios entusiastas cuyas aportaciones son el elemento imprescindible para el éxito de la revista. Aunque en muchos casos no podamos incluir su colaboración, porque pasa que cada vez es mayor el número de artículos que recibimos, con lo que el listón de selección se va colocando más alto. Es una hermosa espiral cantidad-calidad que, a los que estamos embarcados desde hace mucho en esta aventura, nos anima en nuestro empeño.

El proceso de selección es complejo. Los criterios de evaluación examinan la calidad, originalidad y riqueza de contenido y su corrección formal: la tendencia hacia la excelencia en las fotos y la claridad y exactitud en los mapas y en el resto de la documentación. Pero lo primero, previamente, es que el tema sea adecuado: se descartan los escritos que se encuadran básicamente como políticos, religiosos, comerciales o de otros temas que no puedan considerarse "de monte".

El siguiente paso es el de la adaptación del trabajo hasta prepararlo como un artículo terminado. Sobre todo, suele haber que cubrir aspectos que han llegado incompletos y hacer correcciones de estilo o recortar trozos que se consideran menos relevantes y que dificultan la comprensión del artículo o exceden del espacio disponible. Y aquí se incluye la intervención cuando un artículo publicable incluye un componente ajeno (sobre todo, político) importante, y que es evitable. Para ello, se intenta llegar a un arreglo con el autor porque lo que no se practica es la censura. Pero, en muchos casos, los límites no están claros, incluso en la determinación de si el tema es o no político, y algunos pensarán que se han superado ya los límites y otros creerán que todavía quedan muy lejos.

En medio de este proceso entre destinatarios finales, en su mayoría montañeros vascos, y los autores de los artículos, también en su mayoría los mismos u otros montañeros vascos, se encuentra el equipo humano que compone la revista. Somos un grupo de voluntarios, que formamos parte de los dos colectivos anteriores. Y como en todas las organizaciones altruistas, que carecen de la disciplina de los resultados económicos, intentamos sustituir las buenas intenciones por una buena gestión que se base en una dirección estratégica en la busca del cumplimiento de la "misión", ese término tan sonoro que se maneja en la teoría de las organizaciones. E intentamos mantener una identidad corporativa, reflejo de los principios que inspiran los valores, criterios y actuaciones que se plasman en la revista. Una línea clara que expresa un espíritu universal, abierto, plural, progresista, tolerante, no sexista, solidario y ecológico.

Txomin Uriarte